

“Fail Again, Fail Better” erakusketak hartuko du Montehermosoko lehen solairua azaroaren bukaerara arte

Gert Voor in't Holt-en lana proiektu artistikoen 2016ko deialdiaren barruan aukeratutako hiru lanen arteak jendaurrean aurkezten den lehena da

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok eta Voor in't Holt argazkilari gasteiztarrak –holandarra jatorriz– aurkeztu dute gaur goizean erakusketa, zeina irailaren 23tik azaroaren 20ra arte ikusi ahalko baita Montehermoso kulturuneko lehen solairuan.

“*Fail Again, Fail Better*” da proiektu artistikoen 2016ko deialdiaren barruan denboraldi honetan erakutsiko diren hiru lanen arteko lehena. Gaur egungo gizakiaren egoera korapilatsua islatzen du, era guztietako indar eta koiunturek ezartzen baitituzte haren bizitzaren ildoak, horietan eragiteko edo jarduteko ia aukerarik ez duelarik.

Gert Voor in't Holt argazkilaria da egilea, holandarra jatorriz eta Gasteizen 80ko hamarkadaren amaieraz geroztik kokatua. Haren hitzetan, “*Arrakastarekiko immune bihurtzea, arrakastatsua izateko gogoa alde batera uztea, berez, erresistentzia mota bat da; funtsezkoa ez denari eta mehatxua dakarren orori aurre egitea, horretarako behar den guztiarekin, bai arlo materialari bai bizitzaren alderdi sozial eta espiritualei dagokienez (hala nola poesia eta irudikatzeko eta sortzeko beharra) arnasa hartzea bezain funtsezkoa da*”.

Proiektu artistikoak diruz laguntzeko laugarren deialdia izan da aurtengoa. Cantok azaldu duenez, deialdiaren helburua da “*tokiko artisten lan plastiko, ikus-entzunezkoen edo diziplinartekoak ezagutaraztea, proiektuen produkzioa eta zabalkundea bultzatuz*”. “*Horregatik –erantsi du Kulturako arduradunak– aurkezten dugu gaur 2016an hautatutako hiru proiektuen arteko lehena*”.

Bisita gidatuak izango dira ostiraletan, 19:00etan, eta larunbatetan, 12:00etan. Gainera, “Hiri Hezitzailea” programaren barruan ikasleentzako bisitak antolatuko dira asteartetik ostiralera bitartean, 10:00etatik 13:00 etara.

Cantok nabarmendu duenez, aurtan “*zenbait alderdi hobetu dira, artista taldeen eskariz, esaterako, proiektu gutxiago aukeratzea, artistak jaso dezakeen diru-kopurua 4.000 eurotik 6.000 eurora igo ahal izateko; gainera, ordainsarien kontzeptuan ematen dira, aspaldiko eskaera bati erantzunez, alegia, profesionalizatzen lagunduz. Hobekuntza horiei esker, 2015ean aurkeztu ziren 22 proiektuetatik 2016an aurkeztutako 62etara igaro gara, hau da, arrakasta erabatekoa*”.

La exposición “Fail Again, Fail Better” presidirá la primera planta de Montehermoso hasta finales de noviembre

La obra del autor Gert Voor in't Holt, es la primera de las tres seleccionadas en la convocatoria de proyectos artísticos 2016 que se presenta ante el público

La concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto, y el fotógrafo vitoriano de origen holandés, Gert Voor in't Holt, presentaban esta mañana la exposición que presidirá la primera planta del Centro Cultural Montehermoso desde mañana 23 de septiembre hasta el próximo 20 de noviembre.

“*Fail Again, Fail Better*”, que es el primero de los tres proyectos que se expondrán a lo largo de la temporada, fruto de la convocatoria de proyectos artísticos 2016, nos plantea la complicada situación del ser humano en los tiempos actuales, objeto de todo tipo de fuerzas y coyunturas que marcan las pautas de su vida, pero sobre las que apenas tiene posibilidad de incidir o actuar.

Según su propio autor, el fotógrafo de origen holandés, afincado en Vitoria-Gasteiz desde finales de los 80, Gert Voor in't Holt, “*hacerse inmune, desechar la aspiración al éxito, en sí mismo, constituye una forma de resistencia., aceptar la posibilidad de fracaso, resistirse a lo superfluo, y a todo lo que constituye una amenaza y vivir con todo lo que se necesita para ello, tanto en lo que se refiere al terreno material como a los aspectos sociales y espirituales de la vida (como la poesía, la necesidad de imaginar y de crear) es tan fundamental como lo es respirar*”.

Este año se ha celebrado la cuarta edición de la convocatoria de Proyectos Artísticos, cuyo objetivo, según Canto, “*es hacer visible el trabajo de las y los artistas del contexto local (plásticos audiovisuales o multidisciplinares), mediante el apoyo en la producción y difusión de sus proyectos*”. “*Es por ello –ha añadido la responsable de Cultura- que hoy presentamos el primero de los tres proyectos seleccionados para 2016*”.

La exposición, podrá visitarse los viernes a las 19 horas y los sábados a las 12 horas. Además, dentro del programa Ciudad Educadora, los y las escolares realizarán visitas de martes a viernes de 10 a 13 horas.

Canto destacó por último que este año “*se han introducido a petición de los colectivos artísticos algunas mejoras, como la reducción del número de proyectos seleccionados, lo que eleva la cuantía de 4.000 a 6.000 euros para el o la artista, que se bonifica además en concepto de honorarios, respondiendo a una larga demanda de apoyo a la profesionalización artística, entre otras. El resultado de estas mejoras, ha sido subir de 22 proyectos presentados en 2015 a 62 en 2016, un rotundo éxito*”.